



Arratsalde on familiak:

Honekin bat 2022-2023 ikasturterako ikasketa-beka deialdiko informazioa eta datak eransten dizkizuegu.

Eskaera egiteko epea:

1. Online: **irailaren 30rarte**.
2. Ikastetxeko idazkaritzan: **Irailak 27 azken eguna**.

Eskabidea nola egin:

1. Bide telematikoz, <https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-ikasleak-eskolatzeko-ikasketa-beka-eta-laguntzak/web01-a2hikasl/eu/> helbidean.
2. Ikastetxeko idazkaritzan formularioa bertan eskatuz; eskaera berriak eta baita 2021/2022 ikasturtean egindakoak ere.
3. Formularioan ageri diren datuak zuzenak direla egiaztatu ostean, edota egin beharreko aldaketak egin ondoren, eskabideari sarrera emango zaio.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Familia ugariak, gurasobakarrak (banaketak, alarguntasuna...), zuzentasuna, desgaitasunak...egoera justifikatzen duten agiriak edo dokumentuak.
2. Errenta aitortenaren kopia Euskaditik kanpo egin bada.
3. **Diru-sarrerak justifikatzeko dokumentuak:** jasotako diru laguntzen gordailuak, lan kontratuak, 10T, Gurutze Gorria, Caritas edo gizarte-zerbitzuek jaulkitako agiriak...

Informazio

gehiago: <https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-ikasleak-eskolatzeko-ikasketa-beka-eta-laguntzak/web01-a2hikasl/eu/>